

Bake prozesua bultzatzeko gomendioak

2013ko maiatzak 27

Iragan martxoaren 14 eta 15ean bake prozesua bultzatzeko Foro Soziala gauzatu ondoren, erakunde antolatzaileok, behin nazioarteko adituen iritziak entzun eta jasotako herritarren ekarpenak azertuta, ondorengo gomendioak proposatu nahi ditugu bake prozesua bultzatzeko:

a) Oinarrizko adostasunetara iristea bake prozesuaren erronka nagusiei heltzeko

1.- Etorkizuneko elkabizitzarako oinarri sendoak ezarriko dituen elkarriketa eta berradiskidetze ariketa bat bultzatzea gomendatzen dugu, erakundeen, alderdi politikoen eta gizarte zibilaren partaidetza zabal eta aktiboaren bidez. Bereiziki, bake prozesuaren erronka nagusiei heltzen lagunduko duten adostasunak lortzeko lan egitea gomendatzen dugu: desarmaea eta ETaren egitura militarren desegitea, preso eta iheslarien itzultzea, Giza Eskubideen bermea, bai eta jazotako guztiari aurre egitea eta etorkizuneko elkarbizitzaren oinarriak ezartzea ere.

b) Desegite eta desarmatze prozesu bat diseinatu, garatu eta bururaino eramatea

2.- Herritar ororen segurtasuna bermatzea xede, eta bake prozesuaren funtsezko zati bezala, ETaren armen eta egitura militarren desegitearekin bukatuko den prozesu kontrolatu, ordenatu eta adostu bat diseinatzea gomendatzen dugu.

3.- Zentzuzko denbora-tarte batean gauzatu beharreko prozesu honek hasieratik erakunde erraztaile independenteen esku hartzea eta laguntza izatea gomendatzen dugu, Estatuari eta bere instituzioei zein jendarteari, oro har, egindakoaren segurtasuna emateko.

c) Preso eta iheslarien itzultzea erraztea

4.- Preso eta iheslarien gaiari buruzko konponbide integral bat adostea gomendatzen dugu. Elkarbizitza egonkorra eta iraunkorra eraikitzeko funtsezko elementua da. Horretarako, legeak errealitatera egokitzea eta justizia trantsizional bat ezartzea beharrezkoa dela deritzogu, jendarteari elkarbizitza errotzen lagunduz. Aldi berean, hasiera puntu bezala, giza eskubideen kontra edo presoan trataera humanitarioaren kontra doazen espetxe politikaren aspektuak aldatu behar dira, nazioarteko estandarren kontra doazen salbuespen neurriak bertan behera utziz. Hala nola: gaixo larrien egoera, zigorra bete duten presoak aske uzteko ezezko jarrera eta sakabanaketa, familiak zigortzen dituenak.

5.- Itzultze prozesua lege baliabideak erabiliz gauzatzea gomendatzen dugu; prozesua integrala izanik, era mailakatuan, banaka eta zentzuzko denbora-tarte batean gauzatu behar dela onartuz. Presoek bake eszenatoki berriarekiko konpromezua agertzea eta indarkeriazko bideei uko egitea eskatzen du prozesu honek. Gainera, bere jardueraren ondorioz egindako mina aitortu behar dute.

6.- Bake eta normalizazio prozesuaren garapenean presoak eragile aktiboak izatea gomendatzen dugu. Horregatik, garrantzitsua da presoan eta euskal herritarren eta erakunde eskudunen arteko harremanak eta iritzien partekatzea erraztea, etorkizunean inongo indarkeriak tokirik izango ez duen elkarbizitza bultzatzeko helburuarekin.

7.- Iheslarien egoera aztertzea gomendatzen dugu, gizartera daitezten bideak bilatuz, konponbide bat emanaz.

d) Giza Eskubideak bultzatu eta bermatzea

8.- Giza Eskubideak eta askatasun demokratikoak guztiz ziurtatzeko beharrezkoak diren lege aldaketak inplementatzea gomendatzen dugu, horretarako beharrezkoak diren mekanismoak eratuz. Lehendabiziko pausu bezala, erakunde independente batek Giza Eskubideen egoera aztertu beharko luke.

9.- Zigorgabetasunerako tokirik ezin dela izan jasotzen duen printzipioa finkatzea gomendatzen dugu. Nazioarteko lege ordenamenduarekin bat ez etortzeaz gain, egia, justizia eta aitortzaren printzipioen kontra eta biktimen eskubideen kontra joango litzateke. Dena den, nazioarteko estandarrek justiziaren aplikazioak bake prozesu baten testuintugurua aintzat hartzea baimentzen dute.

10.- Estatuaren segurtasun-indar eta kidegoen kopurua eta eginkizuna berdimentsionatzea gomendatzen dugu errealtatera moldatuz. Halaber, segurtasun-indar eta kidegoen gaineko kontrol mekanismoak indartu behar dira erakunde eta gizarte zibilaren aldetik.

e) Egia eta memoria babestea iraganari zintzotasunez aurre egiteko eta etorkizuneko elkarbizitzaren oinarriak finkatzeko

11.- Erakundeek egia, justizia eta adiskidetze prozesu zabal bat eta jendarte osoa barne hartzen duena bultzatzea gomendatzen dugu. Oinarrizko Giza Eskubide guztien errespetutik abiatuta etorkizuneko elkarbizitzarako oinarriak sortzea da helburua. Hori izanik xedea, beharrezkoa da jazotakoari eta bere jatorriari heltzea, biktima guztiak aintzatestea eta dagokien ordaina ematea eta eragindako kalte guztiakaitortzea. Era berean, Egia eta Adiskidetzarako mekanismo bat horri guztiari aurre egiteko tresna baliagarria dela ulertzen dugu, erakundeek bultzatu edo babestutako mekanismoa izanik eta independentea, zeinetan gizarte zibila den protagonista.

12.- Kontatzeko eta gogoratzeko era ezberdinak erraztea gomendatzen dugu, gertatutakoa ukatu gabe, sektore sozial eta politiko guztietan autokritika bultzatuz eta egindako akats larriak aintzatesteko jardun zintzoa bultzatuz. Ildo honetatik, biktima eta giza eskubideen urraketa guztien datu-base ofizial, publiko eta osatu bat egitea premiazkoa da, galdu edo lausotu aurretik jazotakoaren memoria gordetzeko.

Azkenik, dokumentu honetan jasotako jarduera guztiak biktima guztiek daukaten egia, justizia eta ordaintza eskubideekiko errespetuarekin bateragarriak izan behar direla uste dugu.